

**DONOSTIAKO PROBESTUTZAREN OINORDETZA XIII ETA  
XIV. MENDEETAN: ORDINCHO MANS-EKOAREN ETA MARTIN  
GOMEZ-EN GARAIETAKO KORAPILOAK ASKATUZ\***

*Iago IRIJOA CORTÉS*

Historian doktorea – Ereiten K. Z.

**Laburpena:**

Ikerkuntza ezberdinak Behe Erdi Aroko Donostian probestutzak izan zuen garrantziaz aritu dira. Oraindik baina, hainbat esparruk guztiz argitu gabe dira. Horietako bat karguak XIII-XIV. mendeetan izan zuen oinordetza da, Mans leinuaren eskuetan geratu zenetik aurrera. Batzuetan, dokumentazioak ematen dituen datuak eta horien ondotik egin diren irakurketak zalantzarriak dira. Modu honetan, datozen paragrafoetako helburua, esparru horretan sortutako zalantzak argitzea izango da.

**Gako-hitzak:** Donostia. Erdi Aroa. Probestutza. Mans leinua. Jaraunspena.

**Resumen:**

La importancia del prebostazgo en el San Sebastián bajomedieval ha sido puesta de manifiesto por diversas investigaciones. Sin embargo, todavía quedan algunos flecos pendientes. Uno de ellos es conocer los avatares hereditarios del cargo entre los siglos XIII-XIV, una vez patrimonializado por los Mans. A veces, la información aportada por la documentación y las lecturas derivadas de ellos son algo confusas. Por eso, el objetivo de las siguientes líneas será aclarar algunas cuestiones vinculadas a ese ámbito.

**Palabras clave:** San Sebastián. Edad Media. Prebostazgo. Linaje Mans. Herencia.

---

\* Eskerrak eman nahi dizkiogu Mikel Prietori, testua berrikusi eta egindako iradokizunengatik. Horrez gain, ohartu behar dugu ondorengo lerroek Ernesto García Fernández Dr. Jn.-ak zuzendutako eta argitaratu gabe dagoen gure doktorego-tesian oinarrian dutela, bertan adierazitakoei hainbat aldaketa eta hobekuntza egin zaizkielarik.

**Abstract:**

The provost was a very important post on the late medieval San Sebastian, and researches have exposed it. In spite of that, there still are some loose ends about it. One of them are the hereditary changes during the XIII-XIVth centuries, when the post was in the hands of the Mans lineage. Sometimes this kind of doubts are provoked by confuse information of the documents. This will be the objective of the next lines: try to answer some questions about the succession of the post.

**Keywords:** San Sebastián. Middle Ages. Provost. Mans lineage. Inheritance.

**Sarrera**

XIII. mende erdialdean, 1248an hain zuzen ere, Ordincho Mans-ekoa izeneko baiondar-donostiarrari Alfonso X.a Gaztelako erregeak Donostiako probestutza eman zion. Mesedea ez zen doakoa; aitzitik, meneko leial batek burutako zerbitzuengatik egindako ordainsaria zen. Ordincho Sevillako konkistan itsasontzi batekin parte hartu zuen, Ramon Bonifaz almiranteak Kantauri itsasaldeko hainbat herritako ontziz osatutako ontzidian. Probestu berriak ez zuen hori egiteko betebeharririk, Donostiako foruak hiribildua eta bere auzoak osteratetik salbuesten baitzituen, baina Mansek horri uko egin eta partehartze zuzena izateari hobeto zeritzon; ziurrenik, eta gauzak ondo bidean, ordainetan mesederen bat jasotzeko esperantzaz<sup>1</sup>.

Hau honela izanik, Erregeak emandako pribilegioa ez zen hutsaren hurrengoa. Egia esan, karguari lotutako onura edo etekin ekonomikoak ez ziren oso handiak, baina politikoki itzal handiko irudia bihurtu zen. Ordinchori emandako mesedeak karguaren maila instituzionalean eraldaketa sakona ekarri zuen. Ordura arte auzobatzarrak urtero izendatzen zuen kargu izatetik, familia edo leinu jakin bati lotuta egotera pasa zen; modu honetan, probestutza leinu horren ondarearen zati bihurtuko da. Egoera hori denboran zehar luzatu zen, baita XV. mendeko azken bi hamarkadetan jazotako gertakariak Mans-Engomeztarrei egin zitzaieen bahituraren ondoren ere; are gehiago, probestua ez da udalaren eskumeneko kargua izango XVIII. mende erdialdera arte. Modu honetan, udalbatza osatzen zuten karguak urtero berritzen baziren, 1248tik aurrera probestutzaren kasua ez zen halakoa izan; biziartekoa zela esan daiteke eta, beraz, urte batetik bestera udal-karguetan

---

1. TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía, (1200-1500)*. San Sebastián: Dr. Camino, 1997, 390 orr.; BANÚS Y AGUIRRE, J. L.: "La acción naval en que Guillem Per de Mans ganó para la familia el prebostazgo de San Sebastián". In: *BEHSS*, 20 (1986), 377-381 orr.


pertsona ezberdinak aritzen ziren bitartean, probestu moduan ziharduena pertsona berdina zen<sup>2</sup>.

Leinu baten eskutan egonik ere, karguaren jarduna ez zen guztiz bake-tsua izan, familia-adar ezberdinetan eta beraien ondorengoetan interesa piztu zuelaren seinale. XIV. mendean zehar eta baita XV. mende hasieran ere, probestutzaren oinordetzari buruzko hainbat ika-mika eta tirabira izan ziren. Horien inguruan jardungo gara datozen lerroetan. Izan ere duela hainbat urte Soledad Tenak probestuen inguruan ikertuntza sakon bat burutu zuen, bere inguruan ekarpen garrantzitsuak eginaz. Oinordetzari dagokionez ordea, aurkezten zituen hainbat datu dokumentazioan agertzen zirenei kontrajartzen zaizkiola ematen du; edo susmo hori dugu behintzat. Horregatik, ondorengo paragrafoetan horren inguruko berrikuspen bat eginen dugu. Dena den, gure helburua xumea da: oinordetzan aritu zirenen izenak eta urteak berrinterpretatzeari leku egingen diegu. Ez gara bakoitzak erregearengandik zein mesede jaso zituzten, burutu zituzten ezkontza-hitzarmenek zein esanahi islatzen zuten edota beraien ondarea zer nolako ondasunez osatzen zenaren inguruan arituko. Ariketa geneologiko umil batean sarturen gara, ez besterik.

---

2. Esanahiaren inguruan, ikus TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S, aip. lan., 390-393 orr. Probestu eta probestutzaren egoera ezberdinen inguruan, ald. AZPIAZU ELORZA, J. A.; eta ELORZA MAIZTEGI, J.: *Deba, una villa de vocación marinera y mercantil (Siglos XV-XVII)*. Deba: Ostolaza Elkarea, 2011, 126-131 orr.; GARCÍA DE CORTAZAR, J. A.: *Vizcaya en el siglo XVI. Aspectos económicos y sociales*. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína, 1965, 195-203 eta 282-288 orr.; GARCÍA FERNÁNDEZ, E.: “La hacienda medieval en Álava, Guipúzcoa y Vizcaya”. In: *Iura Vasconie*, 6 (2009), 265-328 orr.; IRIJOA CORTÉS, I.: *Estudio de la vida urbana guipuzcoana: Los valles del Oria y Urumea en la Baja Edad Media*. Vitoria-Gasteiz, 2016 (argitaratugabeko doktorego-tesia), III. liburukia, 869-872 orr.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretería a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)*. Erretería: Erreteriako Udala, 2012, 114-120 eta 259-266 orr. (<http://www.erreteria.net/eu/html/41/3863.shtml> helbidean kontsultagarri); ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Régimen municipal en Guipúzcoa en el siglo XV”. Separata: *Conferencias sobre Derecho Foral*. Donostia: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1982, 111-116 orr. (13-207); TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S., aip. lan.; TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: “Los Mans-Engómez: el linaje dirigente de la villa de San Sebastián durante la Edad Media”. In: *Hispania*, 185 (1993), 987-1008 orr.; TXUEKA ISASTI, F.: “Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua”. In: *BRSBAP*, LXIV (2008), 93-158 orr.; VITORES CASADO, I.: “Poder, justicia y fiscalidad. Los prebostes en el País Vasco a fines de la Edad Media”. In: *Histoire Urbaine CAIRN* (prentsan).

### Taula: Donostiako probestuen oinordetzari buruzko hipotesia (1248-1415)<sup>3</sup>



#### 1. Ordincho Mans-ekoarenetik Gillen Per Mans I-era (1248-1264)

Jakin badakigu Ordinchoren eskuetatik, kargua bere odol bereko eta zuzeneko gizonzkoen eskuetara pasa zela. Baina lortu zuenez geroztik eta bere biloba Gillen Per-ek 1264an prebostestutzaren berrespena erdietsi arte, informazioa ilun samarra da. Hemen dago Soledad Tenak aurkezten zuen genealogiarekin alderatuta dakusagun lehen datu kontrajarria<sup>4</sup>. Ikerlariak Gillen Per delakoa Ordinchoren semetzat du, baina dokumentazioan argi eta

3. Oharrak: (pr. 1264-1292): probestutza izan zuen garaia. h.: Heriotza garaia. t.: Testamentua. I: Izen ezezaguneko pertsona. Dominique gotzainaren testamenturako, ikus BALASQUE, J.: *Études historiques sur la ville de Bayonne*. Baiona: Lasserre, 1869, II. liburukia, 570 orr. Ald. TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan.

4. Ald. TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 394 eta 567-569 orr.

garbi azaltzen da bere biloba dela<sup>5</sup>. Bien artean Ordinchoren semeren batek probestutza eskuratu zuen ala ez, ez dakigu. Baliteke hala izatea, eta Miqueo edo Michel Mans baiondarra kargu horretan jardutea. Azken hau Baionako “aristokraziaren buru” izatera iritsi zen XIII. mende erdialdean, baina 1254ko bake itunen ondorioz, Baionako bere negozio guztiak utzi, bertako auzotasunari uko egin eta bere familia ia guztiarekin Donostiara lekualdatu zen, denda eta negozio garrantzitsuak zituen lekura hain zuzen ere<sup>6</sup>. Kide batzuk, ordea, Baionan jarraitu zuten: horien artean Miqueoren seme Dominique egongo da, itxura guztien arabera 1264-1292 artean probestutza eskuratu zuen Gillen Per Mans-ekoaren anaia. Ez dakigu, ordea, Michel Baionatik iristean probestutza lortu zuen ala ez. Gure ustetan, ailegaeraren garaian oraindik orain kargua Ordinchok izango zuen. Azken honen asmoa Michel-i oinordetzan uztea zen, baina Ordincho baino lehenago hil zenez, probestutza Gillen Per bilobaren eskuetara pasa zen; hori litzateke Ordinchoren 1264ko dokumentuak Michelen aipamenik ez egitearen zergatia. Arrazoiak arrazoi, orduetik probestutzak leinuaren gizonezkoek hartuko dute.

## 2. Gillen Per Mans II-tik Martin Gomez II-ra (1318-1351)

1318an Gillen Per Mans-ekoa II.ak kargua eskuratu zuen, orain ikusi dugun izen bereko pertsonaren bilobak. Probestu hori 1330 urte inguruan hil zela dirudi; 1328ko abuztuan Gortean zegoen, Donostiako San Bartolome komentuauren prokuradore edo ordezkari gisa jardunaz, baina 1332rako Martin Perez Lugarizkoa zen probestu moduan ziharduena<sup>7</sup>. Honela, Gillen Per II.aren heriotzaren ondotik kargua leinuarekin ageriko loturarik ez zuten donostiarrengana pasa zen: lehenik orain aipatu dugun Martin Perez Lugarizkoak izan zuen, 1332ra arte, eta ondoren, 1332 eta 1350 artean, Per Nordinch-ekoak<sup>8</sup>. Mans abizena ez zuten pertsonak kargua izateko arrazoiak leinuen arteko loturetan legoke; izan ere, gure ustetan, biak ala biak Gillen

---

5. Dokumentuak argi dio: “*vuestro abuelo don Ordincho*” (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 1991, 27. dok.).

6. Miqueo Mans-ekoa baiondarrarako, ikus, BALASQUE, J., aip. lan., II. liburukia, 166-167, 194 eta 436 orr., besteak beste. Azken egile hau da “aristokraziaren buru” hitzak aipaten dituen.

7. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A.: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995, 22. dok. eta MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., 169. dok.

8. Ald. TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 402-405 eta 569. orr. eta IDEM: “Los Mans-Engómez...”, aip. lan., 995-997 orr. eta 1002-1003 orrialdeetan dagoen zuhaitza.

Per-en suhiak ziren, probestuaren alaben senarrak. Ez ziren egoera horretan zeuden bakarrak: Martin Gomiz izeneko maisu dendariak ere, Lugaritz eta Nordinch-ek egindakoa gauzatu zuen, 1318-1330 arteko probestu izandakoaren alaba batekin ezkontzea, alegia. Lugaritz eta Nordinch-en emazteak nortzuk izan ziren ez dakigu; Martin Gomiz-en kasuan ordea, dokumentazioak emaztearen izen-abizenen inguruan informazio gehiago ematen du, korapilatsua dela aitortu behar dugu.

Laburbilduz, Martin Gomiz Remonda Mans-Otsoa Getariakoarekin ezkondu zela esan dezakegu, Gillen Per II.aren alaba batekin hain zuzen ere<sup>9</sup>; baina esan bezala, dauzkagun datuak ilunak dira, emakumeak hainbat abizen agertzen baititu. 1351 urtean, adibidez, Martin Gomez II donostiarra izen bereko maisuaren eta Remonda Mans-ekoa andrearen seme moduan aipatzen zen<sup>10</sup>. Martin Gomez II horrek, gaskoieraz egoteagatik horren fama-tua egin den bere 1362ko testamentuan, bere burua Martin Gomez zenaren eta Remonda Otsoa andrearen semetzat du. Emakume hau Martin Gomez maisuaren alargun moduan aipatzen da 1344 urtean, Otsoa Getariakoa abizen osoarekin. Ondorioz, Martin Gomez I maisu hori, 1344rako hilda zegoena, Remona Mans-Otsoa Getariakoa andrearen senarra zen, eta beraien semea 1362an testamentua egin zuen Martin Gomez II.a zen, ordurako Donostiako probestutzan hamarkada batez ziharduena. Korapilo genealogiko hau askatzeko beste datu bati egin behar diogu so. Martin Gomez II.a hiltzean, probestutza 1393 inguruan hilko den bere anaia Gillemoten esku geratuko da; eta hau Martin Gomiz eta Remonda Mans-ekoaren semea zen<sup>11</sup>. Modu honetan, dokumentazioan agertzen diren Remonda Mans edo Remonda Otsoa Getariakoa pertsona bera zirela berresten da: 1344 urtea baino lehenago hil zen Martin Gomez-en emaztea, eta 1351-1393 artean probestu izan ziren Martin Gomez II eta Gillenen ama.

### 3. Martin Gomez II eta Sebastian Nordinch-ekoaren arteko auzia (1351)

Hurrengo korapiloa Martin Gomez II horrek probestutza nola eskuratu zuen jakitea da. Litekeena da bai Martin Perez Lugarizkoa, bai Per Nordinch-ekoa, seme-alabarik edo oinordetza zuzenik gabe hiltzea. Guztiz

---

9. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., 205 eta 229 dok.

10. Ibidem, 250 eta 276 dok.

11. Hauetarako, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia-Gipuzkoako Batzar Nagusiak, 1996, 419 dok. ("*Guillem Gómiz, nuestro basallo, fiiio legítimo del maestre Martín Gómez e de donna Rremonda de Mans*", 1379ko abuztua) eta 565. dok. ("*Martín Gómez, fiiio legítimo heredero del dicho Guillem Gómiz*", 1393ko abendua).

logikoa da, beraz, azken horren heriotzean, Martin Gomiz eta Remondaren seme zen Martin Gomiz II.ak probestutzaren berrespena eskatzea, Gillen Per II.aren oinordeko zuzen bakarra bera izango baitzen. Hala gertatu zen 1351ko ekainean. Baina hiru kasuetan karguaren oinordetza Mans leinuaren emakumeen bidez pasa zen, Gomiz, Lugaritz eta Nordinch probestuarien suhiak baitziren. Eta oinordetza prozesu hau izan zen, hain zuzen ere, Sebastian Ordinch-ekoak, Ordinch izena zuen baten semeak, 1351 horretan salatzen zuena. Martin Gomez II.ak probestutza eskuratu ondoren, Sebastian horren aurka agertu eta beretzat eskatu zuen, honakoa argudiatuz:

“el dicho oficio del dicho prebostazgo que pertenece a él por quanto (...) él hera e benía de la línea derecha de los hijos barones de don Ordinch, ‘el Bueno’, que hubiera este prebostazgo, y el dicho Martín Gómez benía de la línea de las mugeres que deçienden del linaje del dicho don Ordinch”<sup>12</sup>.

Baina Sebastianen asmoek porrot egin zuten, Martinen aldeko epaia eman baitzen. Honek zera emango luke aditzera: Sebastian salatzailea, nahiz eta Ordinch abizena izan, ez zela 1333-1350 aritutako probestuarien ahaide zuzena. Gure aburuz, Mans leinuaren adar nagusitik aspaldi banandutako batzuen ondorengoa zen, gertakari hau noiz jazo zen zehazki ez badakigu ere. Baliteke Ordincho Mans-ekoaren semeren batengandik etortzea, agian 1264 urtea baino lehenago hil zen Miqueorengandik. Baina Ordinchoren beste seme bat Ordinch eta bere seme Sebastianen arbasoa izatea indar handiagoa duela uste dugu. Ildo honetatik, eta garaiko onomastika ohiturak aintzat hartuta, Soledad Tenak biltzen zituen datu batzuk bigarren hipotesi horretara bideratzen gaituztela uste dugu. Ikertzaile honek Ordinchoren semeen artean Pierre Nordinch-ekoa aipatzen du. Azken honek hiru seme-alaba izan omen zituen, Bernar, Juliana eta Sebastian izenekoak, eta azken honen eta 1351 urtekoaren homonimia ikusita, bien arteko ahaidetasun zuzen bat egon zitekeelakoan gaude. Kontutan hartu behar dugu Sebastianek probestutza eskuratzeko argudio bezala jartzen zuen emakumeetatiko jaraunspen horrek ez zuela auzian indarrik izan; salatzailea Michen edo Gillen Per Mans II.aren zuzeneko senidea izan balitz, Remonda Mans-ekoarekiko gertutasun loturak beren alde egingo zuen, baina ez zen hala izan. Ondorioz, Sebastian hori XIII. mendearen erdialdean sortutako beste adar batetik zetorrela pentsatu behar dugulakoan gaude<sup>13</sup>.

---

12. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección...* (1200-1369), aip. lan., dok. 276.

13. Honen inguruan, TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: “Los Mans-Engómez...”, aip. lan., 995-996 orr.; IDEM: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 568-569 orr. Bestalde, Dominique Mans-ekoa gotzainak, bere 1303ko testamentuan, Donostiako Juliana Nordincho-koa aipatzen zuen; ahaidetasun loturarik adierazten ez zuenez, baliteke leinuaren beste adar bateko kidea izatea; izena ikusita, agian bere lehengusina litzateke (BALASQUE, J., aip. lan., II. liburukia, 570 orr.).

Sebastian eta bere aurrekoen inguruan gauza gutxi batzuk aipatu ditza-kegu. Horien artean, Ordinch abizen horrek merkataritzarekin lotura estua zuela. Mundu horri lotuta azaltzen zaigu XIV. mende erdialdean, Europa atlantiarrean zein Mediterraneoan bere jardunak bideratuz. 1330ean, adibi-dez, Juan “*Denordin*” Mallorcara iritsi zen eta 1347 urtean, “*Ordische de Dordincho*” izeneko Donostiako “*natif*”-a Arroxelan dugu. Baliteke pertsona hau Sebastianek bere aita moduan aipatzen duen “Don Ordinch” bera izate-  
tea; kronologia aldetik bederen, badu logikarik<sup>14</sup>.

#### 4. Martin Gomez II-tik Martin Gomiz III-ra (1362-1393)

Edonola ere, Martin Gomiz II.ari probestutza berretsi ondoren gauzak ez ziren guttiz baketsuak izan. Martinek 1362 urtean egin zuen testamentua. Agidanez, ez zuen jaraunsle zuzenik; hauen inguruko aipamen ezak aintzat hartzen baditugu, badirudi Martin ez zela ezkondu eta ez zuela seme-a-labarik izan. Hau dela eta, ondasunak anai-arreben artean banatu zituen. Probestutzaren inguruan ez zuen azalpenik ematen eta karguak zehazki zein bide hartu zuen ez dakigu, baina leinuko emakumeren batera pasa zela uste dugu<sup>15</sup>.

Dokumentazioak utzitako lorratzari jarraituz, 1364an Lope Ibañez Durangokoa probestu moduan dugu; modu horretan azaltzen da Erretereria eta Oiartzunen artean epaile-laudoa eman zuenean<sup>16</sup>. Martinek bere

---

14. Mallorcan 1332an “Juan de Ardinxo” bat agertzen da, ziurrenik Nordinch bera dena. Emandako datuen inguruan, ikus TRANCHANT, M.: *Le commerce maritime de La Rochelle à la fin du Moyen Âge*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes, 2003, 260 orr.; ORTEGA VILLOSLADA, A.: “Ciudadanos atlánticos en Mallorca (1230-1349)”. In: *El Regne de Mallorca: cruïlla de gents y de cultures (segles XIII-XV)*. Palma: Institut d’Estudis Balearics, 2009, 353 orr. (347-359) eta ORTEGA VILLOSLADA, A.: “La aportación mallorquina al comercio y navegación entre ciudades atlánticas. 1300-1350”. In: SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; ARÍZAGA BOLUMBURU, B.; eta SICKING, L. (arg.): *Diplomacia y comercio en la Europa atlántica medieval*. Logroño: Gobierno de La Rioja-Instituto de Estudios Riojanos, 2015, 277-301, bereziki 293-301. Azken egile honen lanetan agerian geratzen da, beste behin ere, Gaztelako Koroa zenaz kanpoko artxiboek ekarpen garrantzitsuak egin ditzaketela; bere kasuan, XIV. mendeko Donostiako merkatarien inguruan.

15. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; y MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 276 (1351) eta 293 (1362) dok. Bere testamentuan anai-arreba bezala Katalina, Guillemot (1379-1393 artean probestu izango zena) eta Bernalt aipatzen zituen. Soledad Tenak horien artean Pelegrin eta Saubat Engomezkoak ere sartzen zituen, baina lehenengoa ez da testamentuan aipatzen eta bigarrena, berriz, lekuko moduan azaltzen zaigu, senidetasan loturei inolako aipamenik egin gabe. Pelegrini buruz, ald. TENA GARCÍA, M.<sup>a</sup> S.: “Los Mans-Engómez...”, aip. lan., 997 orr.

16. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 299. dok., 330. orr.



testamentuan Katalina izeneko arreba aipatzen duenez, probestua hil eta gutxira hura Lope Durangokoarekin ezkondu zela uste dugu. Probestutza honengana nola iritsi den ez dakigu; hau da, Martin eta Durangoren arteko hitzarmen baten ondorioz edo, bestela, Martinen heriotzean gelditu zen hutsunea leinuaren barne-akordio baten bidez konponduz. Azken honen ildotik, eta hipotesiekin ari garela aintzat hartuta, zera pentsa daiteke: Martinen anai ziren Gillermot eta Bernalt adinez nagusi izan arte, kargua Katalinaren (eta Lope Durangokoaren) esku geratu zen; hau da, sendiko emakume adarrean mantendu zen, leinuko gazteak gizon moduan hartu arte. Hipotesi honek indarra duela uste dugu, nahiz eta datu bitxiren bat topa daitekeen. 1379ko abuztuaren hasieran, adibidez, Gillermoti probestutza berretsi baino aste gutxi batzuk lehenago, Juan Mallakoa izeneko bat dugu kargua betetzen<sup>17</sup>. Honen aurrean bi teoria planteatu daitezke: batetik, Durango 1379an hiltzea eta Gillermotek kargua eskuratu bitartean, leinuko beste kide batek hori betetzea, Mallak hain zuzen ere. Bestetik, azken hori ordezko moduan eta behin-behinean aritzea, Durangok berak aginduta. Edonola ere, Martin Gomiz II. horrek testamentua egin eta hainbat urtera, probestutza bere anaia Gillemotek hartu zuen, 1393an hil zen arte. Ordutik, eta hogeit urte baino gehiagoz, bere seme Martin Gomezek izan zuen, 1415 arte.

Badirudi Martin I eta Martin II nahiko gazte hil zirela, eta bigarrenak ez zuela seme-alabarik izan. 1379an, Gaztelako Juan I.ak Gillemot edo Gillen Gomizi probestutza berretsi zion. Azken hau Martin Gomiz maisuaren eta Remona Mans-ekoa andrearen semea zen eta berrespen idatzian Donostiako auzo eta probestu aipamena egiteaz gain, erregearen meneko titulua ere hartzen zuen, XIII. mendeko Ordincho Mans-ekoaren itzala jarraituz. Gillen 1340 urte inguruan jaio zela kontutan hartzen badugu (hau da, probestutza eskuratu zuen garairako adinekoa zela), kargua denbora gutxian izan zuela ulertuko dugu. Honela, 1393an, bere seme Martin Gomez berretsi zitzaion, probestutzari lotutako izen bereko hirugarren pertsonari hain zuzen ere<sup>18</sup>.

---

17. Hernanik eta Donostiak 1379an sinatu zuten hitzarmenean azaltzen da. Ikus HERRERO LICEAGA, V. J.; y FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, M.: *Fuentes medievales del archivo municipal de Hernani (1379-1527)*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 2011, 1.go dok. eta MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., 384. dok.

18. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; y MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., dok. 565.